



GAZTERIA

5

5

1. **Sarrera**
 - 1.1. Gazteentzako politika integrala
 - 1.2. Jarduera-ildoen eskema
 - 1.3. Aurrekontua

2. **Jarduera-ildoak**
 - 2.1. Planifikazioa eta arauen garapena
 - 2.2. Gazteen egoeraren azterketak eta analisiak
 - 2.3. Gazteen sustapena
 - 2.4. Parte-hartzea eta zabalkundea
 - 2.5. Gazteen eremuko ekimenetarako laguntza

3. **Etorkizuneko erronkak**



1. Sarrera

1.1. Gazteentzako politika integrala

Gaur egun 330.000 gazte daude erroldatuta Euskal Autonomia Erkidegoan, 1996an zeudenak baino %35 gutxiago. Gazteriaren Euskal Behatokiak aldiro-aldiro argitaratzen dituen azterketa demografikoek erakusten dutenez, nabarmen jaitsi da 15-29 urte bitarteko gazteek biztanleria osoarekin alderatuta duten proportzioa; %23,9 izatetik %15,1 izatera urritu da.

Gazteriaren hazkunde negatiboaren parean, hala ere, gaur egungo gazteria aurreko hamarraldietakoaren oso bestelakoa dela erakusten duten errealitate berriak azaldu dira. Adin horietako biztanleen artean etorkinen portzentajea %13,5 izatera iritsi da; horrek, jakina, nahiko gizarte-egitura berria sortzen du, 1996an etorkizunen pisua %0,7 zela kontuan hartzen baldin bada.. Etorkinen etorrerak (gazteen proportzioa %36 da etorkinen artean) eta jaiotza-tasa berreskuratzeak zerbait leundu du Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren zahartze-prozesu bizkorra.

Bilakaera demografiko horri esker esan daiteke, neurri handi batean, biztanleria gaztea kopuruz urritu bada ere, aniztasunez hazi egin dela. Eta aniztasun hori ez zaio zor biztanle horien jatorriari bakarrik, gazteria orearen ezaugarria den heterogeneotasunari ere bai baizik.

Gazteriaren egituran izan diren aldaketa horiekin batera, ordea, sektore honetan eragin nabarmena izan duen krisi ekonomikozko egoera bat sortu da azkeneko urte hauetan. Gazteen arteko langabezia-tasak berebiziko gorakada izan du, 2007an %7,6 izatetik %26,3 izatera igo baita, EUSTATEk 2011ko lehenengo hiru hilabetei buruz argitaratutako datuen arabera.

Lan-merkatuaren egoerak are gehiago urritu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko gazteek gurasoen mendetasunetik askatzeko zituzten aukerak, Espainiako Gazteriaren Kontseiluak Espainiako Etxebizitzako Gazteriaren Behatokiko Buletinean argitaratutako datuek erakusten dutenez: Euskal Autonomia Erkidegoko emantzipazio-tasa %45,3koa da, Espainiako tasa (%45,6) baino zertxobait apalagoa. Alde honetatik esan beharra dago gazte baten batez besteko soldataren %42,9 hartuko lukeela etxebizitza libre baterako batez besteko hipoteka baten lehenengo kuotak; ratio hori oso urruti dago onar daitekeen gehienekotzat jotzen den %30eko portzentaje egokienetik.

Euskal gazteriak aurre egin behar dien erronka ugari horien aurrean, ikuspegi integral bat aplikatu nahi du Gazteriaren Zuzendaritzak egiten duen politikak. Horrek esan nahi du, politika transbertsalen bidez gazteak gurasoen mendetasunetik emantzipatzea, autonomo izatea eta gizarteratzea ahalbidetuko duten ekimenak bultzatu behar direla, batetik, eta gazteentzako jardueren, zerbitzuen eta ekipamenduen bidez sustapen-Programak bideratu behar direla, bestetik.

Gazteriari dagozkion politiken integritasuna tradizioa da dagoeneko Euskal Autonomia Erkidegoan garatu den eremuan, eta are gehiago indartuko da Gazteriaren Euskal Legea eta 2020 Gazteriaren III. Plana prestatzen direnean, orain arte egin diren lanen emaitzek erakusten dutenez.

1.2. **Jarduera-ildoen eskema**

Gazteriaren Zuzendaritzak 2009an eta 2010ean izan duen jarduera bost lan-ildotan –bakoitzak bere Programak izan ditu– zentratu da batez ere:

- Gazteriaren Euskal Legea eta 2020 Gazteriaren III. Plana prestatzeko lanak egitea, horretarako gazteek, erakundeek eta administrazioak parte hartzeko irekita zeuden prozesuak bideratuz.
- Gazteriaren Euskal Behatokiak egiten duen lanari esker, gazteen errealitatearen ezagutza sakon bat edukitzea.
- Gazteen sustapenerako Programak garatzea, horietan berrikuntza eta hobekuntza bat sartuz eta 2011n garatzeko programa berriak prestatuz (gazteen mugikortasunerako edo trukerako laguntzak, «Gazte-txartela European Youth Card»-en aro berria eta Euskadiko Gazteen Informazio Zerbitzuarentzat –GIZ– aplikazio informatiko berri bat garatzea).
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren eta garatu diren zabalkunde-sistema guztien bitartez gazteekin etengabeko elkarrizketa izatea.
- Euskal Autonomia Erkidego osoan gazteentzako Programak garatzen dituzten erakunde publikoekin eta pribatuekin elkarlana eta lankidetzeta izatea.

JARDUERA-ILDOA	PROGRAMAK
Planifikazioa eta arauen garapena	Gazteriaren Euskal Legea
	2020 Gazteriaren III. Plana
Gazteen egoeraren azterketak eta analisiak	Gazteriaren Euskal Behatokia
Gazteen sustapena	Euskadiko Gazteen Informazio Zerbitzua
	Gazte-txartela
	Aisialdiko Heziketa
	Euskadiko Gazteen Aterpetxe Sarea
	Auzolandegiak
	Gazteak Lankidetzan
	Gazteak Ekintzan
Parte-hartzea eta zabalkundea	Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
	Gazteukera.net
Gazteen eremuko ekimenen laguntza	Gazteen eremuko Programak eta jarduerak
	Balio demokratikoetan eta bakearen kulturaren hezteko Programak eta jarduerak
	Gazteentzako ekipamenduen sarea toki-mailan

1.3. Aurrekontua

Gazteria Zuzendaritzaren aurrekontua 5,66 milioi eurora iristen da 2010ean; Kultura Sailaren aurrekontu osoaren %2 inguru esan nahi du horrek.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren gastuen aurrekontua zerbitzuz zerbitzu. 2009 - 2010

	2009		2010	
	€	%	€	%
Egitura eta Laguntza	5.899.054	1,9	7.376.160	2,5
Gazteria eta Gizarte Ekintza	6.473.748	2,1	5.658.740	1,9
Kirola	14.261.334	4,7	14.958.194	5,0
Kulturaren Sustapena	31.000.350	10,1	34.420.765	11,6
Ondarea	35.954.838	11,8	30.141.546	10,2
Gizarte Hedabideak	155.189.336	50,8	150.180.000	50,6
Hizkuntza Politika	56.648.340	18,5	54.221.595	18,3
GUZTIRA	305.427.000	100,0	296.957.000	100,0

Aurrekontua diru-partidaz diru-partida aztertuz gero, garbi ikusten da transferentzietara eta diru-laguntzetara bideratzen dela (4. eta 7. kapituluak) Zuzendaritza honen gastuen erdia, %55-60 bitarteko zati bat beraz; horregatik, Zuzendaritza honek zuzenean kudeatzen duen jarduera –funtzionamenduaren gastuei dagokiena–, aurrekontu osoaren %26 baizik ez da. Langileei dagokien gastuak gora egin du 2009tik 2010era; milioi bat eurotik gorakoa da, eta guztizko kopuruaren ia %19 hartzen du.

Gazteria Zuzendaritzaren aurrekontua kapituluz kapitulua, 2009 eta 2010

Kapitulua	2009		2010	
	€	%	€	%
1. Langile-gastuak	884.644	13,7	1.064.897	18,8
2. Funtzionamendu-gastuak	1.680.272	26,0	1.465.081	25,9
Gazteriaren Euskal Behatokia	689.750	10,7	489.483	8,7
Auzolandegiak	220.000	3,4	305.000	5,4
Gazteak Lankidetzan	38.000	0,6	38.000	0,7
Gazte-txartela	47.000	0,7	47.000	0,8
Agiriak ematea	80.000	1,2	60.000	1,1
Sustapen-kanpainak	160.000	2,5	90.000	1,6
Gainerako partidak	445.522	6,9	435.598	7,7
4. Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak	1.509.160	23,3	1.424.555	25,2
Gazte-elkartek	878.000	13,6	878.000	15,5
Euskadiko Gazteriaren Kontseilua	331.248	5,1	294.000	5,2
Gernika Gogoratuz	120.202	1,9	106.500	1,9
Gainerako partidak	179.710	2,8	146.055	2,6
6. Inbertsio errealak	60.000	0,9	0	0,0
7. Kapital-eragiketarako transferentziak eta diru-laguntzak	2.339.672	36,1	1.704.207	30,1
Gazteentzako ekipamenduak	2.333.672	36,0	1.698.207	30,0
Euskadiko Gazteriaren Kontseilua. Inbertsioak	6.000	0,1	6.000	0,1
GUZTIRA	6.473.748	100,0	5.658.740	100,0

2. **Jarduera-ildoak**

2.1. **Planifikazioa eta arauen garapena**

Testuingurua. Gazte-politiken planifikazio-tradizioa

Badira hamar urtetik gora Euskal Autonomia Erkidegoko gazteriaren politiketan laneko metodologia gisa planifikazioa erabiltzen hasi zela, 1999-2001 Gazteriaren I. Plana prestatu zenez gero. Lan egiteko modu horrek ekarri zituen emaitzak ikusita, 2002-2005 Gazteriaren II. Planean esperientzia errepikatuzera bultzatu zuen, eta Gazteriaren III. Plana-2020 prestatzerakoan ere berdin.

Urte horietan zehar gazteriaren errealitatea aldatu egin da, arras aldatu dira gazteriaren egoera eta euskal gazteriak aurre egin behar dien erronkak. Alde horretatik, hain zuzen, Lege Proiektu hau erredaktatzeko lanetan atera den ondorioetako bat gazteriaren programen xedea diren pertsonen adin-heina zabaldu beharra izan da. Zuzendaritza honen eta gazteriarentzako politikak garatzen dituzten Udalen eta bestelako administrazioen esperientziak argi erakusten du gaztaro aurreko pertsona multzoa, gizarteratzeko prozesuan sartuta dagoena (12 urtetik aurrera), gazteriarentzako politikaren xedetzat hartu behar dela orobat.

Beste alde batetik gurasoen mendetasunetik emantzipatzea ere erantzun beharreko erronka bat da oraindik ere, gazteen kolektiboak mendekotasun ekonomiko handia baitu familiarekiko eta zailtasun handiak baitu lanaren eta etxebizitzaren merkatuan sartzeko.

Gizartearen aldaketak gero eta bizkorrago gertatzen direnez, programen egonkortasuna malgutasunarekin eta zirkunstantzia desberdinetara eta Testuinguruaren aldaketetara egokitzen jakitearekin konbinatu behar da. Gazteriaren Euskal Lege bat onartzea aukera bikaina izango litzateke, beraz, gai hau arautzeko eta euskal administrazioen arteko koordinazioa hobetzeko, alde batetik, eta baita gazteen sustapena egiteko zein programa transbertsalak garatzeko apustua egingo duen gaztaroaren politika-eredu bat are gehiago finkatzeko.

Programak. Araudiaren garapenerako eta planifikaziorako eredu baten bila

2009an eta 2010ean datozen urteetan euskal administrazio publikoen Gazteriaren Politika Integrala zuzenduko duten Gazteriaren Euskal Lege Proiektua eta 2020 Gazteriaren III. Plana prestatzeko lanak egin dira. Gazteriaren Euskal Legea 2010. urtearen hasieran hasi zen parte-hartze sozial zabal batez eta erakundeen arteko elkarrizketa zabal batez landu da.

2009ko urrian hasi zen prozesu hori, Gazteriaren II. Planak izandako eraginaren ebaluazio bat eta Euskadiko gazteriaren Diagnosi bat eginez. Gazteriaren Euskal Lege Proiektuaren eta 2020 Gazteriaren III. Planaren lehenengo



zirriborroak ere prestatu ziren; dokumentu horiek Kultura Sailaren Zuzendaritza Kontseiluak onartu zituen eta Eusko Jaurlaritzako Sail guztietara bidali ziren, haien ekarpenak jasotzeko.

Hurrengo zirriborro batean oinarrituta, kontsulta eta eztabaida publikoko prozesu bat izan da; Foru Aldundiek, eragile sozialek eta gazteek beraiek hartu dute parte prozesu horretan, aurrez aurre eta *on-line* parte hartzeko mekanismoen bidez. Horrek guztiak Legearen zirriborroa⁶ eta Gazteriaren III. Plana berridazteko balio izan du.

2.2. Gazteen egoeraren azterketak eta analisiak

Testuingurua. Ezagutu gero jarduteko

Gazteriaren Euskal Behatokia (GEB) 1999. urtearen bukaera aldera sortu zen, Gazteriaren I. Planaren etengabeko ikerketa-, informazio- eta dokumentazio-eginkizunak betetzeko. Hamar urtetik gora lanean jardun ondoren, erreferentziatzko ezinbesteko puntua bihurtu da erakunde hori gazteriaren errealitatea ezagutzeko eta aztertzeko, eta gazteriaren politikari dagozkienetarako formazio eta dokumentazio lekua bilakatu da orobat.

Urte hauetan guztietan zehar gazteriaren errealitatea aldatuz joan da eta heterogeneoago bihurtu da; horrexegatik, hain zuzen, orain inoiz baino beharrezkoagoa da gazteriaren egoera eta barne dinamikak aztertzea eta ikertzea. Errealitatea ezagutzea ezinbestekoa da gazteek dituzten premietara egokitzeko gauza izango diren gazteriaren politikak diseinatzeko, lehentasuna duten jarduera-eremuak zein diren atzeman nahi badira.

⁶ Gazteriaren Euskal Legearen Proiektua 2011ko urriaren 7an onartu zuen Gobernu Kontseiluak..

Programak. **Gazteriaren errealitateari buruzko informazioa eta zabalkundea**

Behatokiak gazteen errealitateari buruzko **estatistikaz** osatutako informazio-base handi bat mantentzen du. Oinarri horretatik eta bestelako zenbait iturburutatik abiatuta, era askotako ekimenak bideratzen dira informazio hori eza-gutarazteko eta aztertzeke. Horrela, adibidez, *on-line* Estatistika Adierazleen sistema interesa duen ororen eskura dago denbora guztian, eta 135 adierazleri buruzko kontsultak egiteko aukera ematen du.

Erakunde hori da gazteriaren errealitateari buruzko informazio estatistikoaren erreferentzia ere eta horregatik da gazteriaren egoerari buruzko era askotako informazioa eskatzen dioten erakundeen **aholkularia** ere: Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Eusko Jaurlaritzako Sailak, Udaletako Gazteriaren Zerbitzuak, Foru Aldundiak edo elkarteak eta ikertzaileak. Azkeneko bi urte hauetan beste erakunde batzuek bideratu dituzten ikerketetan ere jardun du elkarlanean.

Beste alde batetik, bere estatistika-basea edo bestelako iturburu batzuk erabiliz **ikerketak egiten eta argitaratzen** ditu; 1.700 pertsona edo erakunde baino gehiagotara iristen da horien zabalkundea. Argitalpen hauek egin ditu 2009an eta 2010ean:

- *Euskal Gazteria 2008. Gazteak bilduma. 2009ko maiatza.*
- *Gazteen Argazkiak 12 eta Gazteen Argazkiak 13. Gazteen Argazkiak bilduma. 2009ko iraila.*
- *Euskal gazteriaren egoeraren diagnostika. Emaizten laburpena. 2009ko abendua.*
- *Gazteriaren adierazleak 2008 eta Gazteriaren adierazleak 2009 Euskadiko Gazteriaren Panorama Sailaren barruan.*

Bere lanen argitalpenez gainera, Behatokiak beste zenbait gaiari buruzko **ikerketak** ere bultzatu ditu:

- «III. Gazte Planaren oinarriak-2020 eta gazteriaren politikak Euskal Autonomia Erkidegoan duen eraginaren jarraipena egiteko gazteriaren adierazleen panelaren diseinua».
- «Oporretako aisialdi eta astialdirako baliabideen EAEko mapa Euskal Autonomia Erkidegoan 2010».
- «Erabiltzaileek Gazte Txartelari ematen dizkioten erabilerak eta hari buruzko iritziak».
- «Enpresa kolaboratzaileek Gazte Txartelari ematen dioten balorazioaren azterketa kualitatiboa».
- «Gazteak, gaigabezia eta aisia Euskadin».
- «Herritarren parte-hartzea eta Europar Batasuna».
- «Sinesmenak, etika eta erlijio batekoa izatea».



- «Gazteak eta berdintasuna».
- «Gazteak eta bizitza-prekarizazioa. Bizi Baldintzen Inkestaren azterketa».
- «Gazteen Argazkiak 14: Kultura politikoa eta demokratikoa». Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin batera egindako azterketa, 15 urtetik 29ra bitarteko pertsonen lagina bereziki zabaldurik.
- «EAEko gazteen nazioarteko mugikortasuna».
- «Gazte-enpresagintza EAEn».

GAZTE.DOC bihilabetekari elektronikoa otsailean, apirilean, ekainean, urrian eta abenduan argitaratzen da urtero; gai hauek lantzen ditu: Gazteriaren Euskal Behatokiaren ikerketa-zerbitzuak egindako datu estatistikoen analisiak, argitalpenei buruzko informazioa, Dokumentazio Zentroak eskuratutako azkeneko bibliografia, formazio-ikastaroen zabalkundea, nazioarteko berriak, gazteriarekiko laneko alorren batean nabarmendu diren profesionalen egindako elkarrizketak, laguntzak eta bekak, eta abar. Buletin honek 440 harpidedun ditu, pertsona partikularrak zein instituzioak; azken hauek produktu hau are gehiago zabaltzeko erantzukizuna dute.

Formazioari dagokionez, gazteriaren alorreko profesionalen Etengabeko Prestakuntza Plana garatzeaz gainera (14 ikastaro, 210 ikastordu eta 298 ikasle guztira), aipatzekoa da orobat 2009-2010 ikasturtean UPV/EHUrekin Gazteriari buruzko Ikasketetako Unibertsitate Masterra emateko sinatutako hitzarmena.

Behatokiaren programen artean garrantzi handia du, azkenik, **Dokumentazio Zentroak** egiten duen bilketalanak; Zentro honek, izan ere, 3.720 monografiaren izenburuak eta segidako argitalpenen 98 izenburu ditu erregistratuak.

2.3. **Gazteen sustapena**

Testuingurua. **Pertsona gazteen premiak**

Gazteriaren politiken bidez erantzun bat eman nahi zaion garrantzi handiko erronketako bat gazteen emantzipazioarena da. Horrekin batera, ordea, bada bestelako premia sail bat gaur egun gazte izatea definitzen dutenak: hezkuntza-premiak, informazio-premiak, aisia-premiak eta abar. Hau da, pertsona gaztea izateak era askotako premia multzo handi bat izatea esan nahi du, eta gazteriaren politikek erantzun diezaiekete eta erantzun behar diete premia horiei.

Ikuspegi honetatik begiraturaz gero, beraz, emantzipazioari dagozkion programekin batera, beren xedea gazteriaren sustapena, pertsona gazteen garatzea duten Programak ere konbinatu behar ditu gazteriaren politika integral batek.

Programak. **Gazteria aktibo baterako aukerak**

Euskal Autonomia Erkidegoak 77 zentro ditu gazteei Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta hainbat udalek osatzen duten **Euskadiko Gazte Informazioko Euskal Zerbitzuan** bateratuta dauden era askotako jardueri eta gaiei buruzko informazioa eta aholkularitza emateko. Zentro horietatik 6 Araban daude, 47 Bizkaian eta 24 Gipuzkoan.

Zentro horietan hainbat jarduerari eta hainbat gairi buruzko informazioa eta aholkularitza aurkitzen dute gazteek (aisialdiko jarduerak, lan-eskaintzak, mugikortasuna eta etxebizitza) eta era askotako gestioak egin ditzakete, txartelak eskatzea, adibidez (Gazte-txartela, aterpetxeetarakoa, ikasle-txartela, irakasle txartela eta go25).

2010. urtean zehar 60.000 erabiltzailetik gora izan dira gazte-informazioko bulegoetan; horien sexu-banaketa ez da orekatua izan, %65 emakumezkoak izan baitira eta %35 gizonezkoak.

Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen artean arrakastarik handiena duen programa **Gazte-txartela** da, zalantzarik gabe; 2.000 beharpen inguru eskaintzen ditu eremu askotako –kultura, kirolak, garraioak, ostalua, formazioa, osasuna, turismoa eta beste asko– ondasunak eta zerbitzuak erosteko.

2007-2010 bitartean Gazte-txartelak 5 finantza erakunderen laguntza izan zuen (Euskadiko Kutxa, La Caixa, BBK, Kutxa eta Vital Kutxa); aldi horren bukaerarako 14 urtetik 30 urtera bitarteko 63.367 gaztek zuten gazte-txartela. Kopuru horrek erakusten duenez, berebiziko gorakada izan du erabiltzaileen kopuruak, 2008 bukaeran 44.238 gaztek baitzeukaten eta 2009 bukaeran 51.096 gaztek.

2010ean bi azterketa egin dira Gazte-txartelaren erabiltzaileen eta lankideen iritziak jasotzeko eta enpresa bat kontratatu da (Market AAD) Euskal Autonomia Erkidegoan Gazte-txartelaren kudeaketaren ardura har dezan.

2010ean beharpen multzo bat egin da; horretarako beste Autonomia Erkidego batzuekin eta Europako zenbait eskualderekin unean uneko elkarlanerako hitzarmenak sinatu dira. Orobat Sarea sareko antzokiekin elkarlanerako hitzarmen bat egin da eta hamahiru hitzarmen sinatu dira kultura-programatzaileen bitartez.

Gazteria Zuzendaritzak koordinatzen dituen programen artean badira aisialdiarekin lotura duten eta gazteen artean nahiko harrera ona duten beste zenbait programa ere. Hona:

- **Aisialdiko Heziketa.** Gazteria Zuzendaritzak kudeatzen ditu Aisialdiko Begiraleen, Aisialdiko Zuzendarien eta Dinamizatzaile Soziokulturalen titulazioak. Gauza berrien artean, 2010az gero hainbat bilera egin dira Aisialdiko Eskolekin gazteriarri dagokion eremuan kualifikazio berriak onartzeak ekarriko duen egoera berriari heltzeko.

Aisialdiko Heziketarako emandako tituluak

Titulu mota	2009	2010
Aisialdiko Begirale	773	714
Aisialdiko Zuzendari	113	58
Dinamizatzaile Soziokultural	14	

- Euskadiko Gazteen Aterpetxe Sarea hazi egin da aldi honetan; Gernikako aterpetxea sartu da izan ere, sarean; gaur egun 24 aterpetxe dira, eta 2.934 leku daude guztira.

Emandako agiriak

Agiri mota	2009	2010
Nazioarteko aterpe-kide-txartela	8.734	7.495
Nazioarteko Ikasle. eta Irakasle-txartelak	7.150	7.131

- **Auzolandegiak** jatorri desberdinetako gazte talde batek, bere kabuz eta irabazi asmorik gabe, bi astetik laura bitarteko aldi batez, osagarriko beste jarduera batzuekin batera, gizartearen eragina duen lan bat egiteko konpromisoa hartzen dueneko jarduerak dira. 2009an Euskal Autonomia Erkidegoko Auzolandegien eskaintza bederatzi auzolandegi eta 360 postukoa izan zen; 2010ean zazpi auzolandegi izan dira, eta 228 postu. 2010ean Euskadiko 486 gaztek hartu dute parte auzolandegietan (215 gaztek Euskal Autonomia Erkidegoko auzolandegietan, 113 gaztek atzerrian eta 158k beste erkidego batzuetakoetan). Alor honetan aipatzekoa da, orobat, 2010eko urrian Bilbon Jardueren eta Auzolandegien koordinaziorako eta ebaluaziorako (2010-2011 Udako Kanpaina) Estatu osoko Jardunaldiak antolatu izana.
- **Euskal Gazteak Lankidetzan** programaren barruan euskal gazte sail batek udako hiru hilabeteetan zehar lankidetzako proiektuetan parte hartzen dute Amerika, Afrika eta Asiako lurraldeek



tan; horretarako gastu guztiak ordaintzen zaizkie: bidaiak, aseguruak, osasun-aseguruak, garraioak. 2009an 93 gaztek hartu zuten parte programa honetan, eta 2010ean 72k.

Euskal Gazteak Lankidetzan programaren adierazleak

Titulu mota	2009	2010
Egindako eskariak	455	470
Parte hartu duten gazteak	93	72
Parte hartu duten Euskal Autonomia Erkidegoko GKEak	21	16
Aurkeztu diren proiektuak	48	33

- **Gazteak Ekintzan** Programak Europar Batzordeak (Espainiako Agentzia Nazionalaren bidez) gazteei, ikaskuntza ez-formalaren eta informalaren bidez, europar ikuspegi bati dagozkion gaitasunak eskuratzeko aukera eskaintzeko ematen dituen diru-laguntzak kudeatzen ditu. Era askotako ekimenak dira, gazte-trukeak, gazteen ekimenak, Europako boluntarioen zerbitzua, herrialde elkartuekiko lankidetzak, sareko prestakuntza eta proiektuak eta gazteriari buruzko mintegiak.

Gazteak Ekintzan programaren adierazleak

Titulu mota	2009	2010
Aurkeztu diren proiektuak	16	16
Parte hartu duten gazteak	180	277
Diru-laguntzak	169.957	201.559

2.4. Parte-hartzea eta zabalkundea

Testuingurua. **Gazteen parte-hartzearen bide luzea Euskal Autonomia Erkidegoan**

1986an Consejo de la Juventud de Euskadi–Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (CJE-EGK) sortu zenez gero Euskal Autonomia Erkidegoko gazteriaren politikak diseinatzen eta betetzen parte hartzeko joera handia finkatu da. Une honetan 57 elkartek osatzen dute CJE-EGK; elkarte horiek, beren aldetik, harreman eta lotura estuak dituzte beste hamarka gazte-elkarte eta talderekin.

CJE-EGK da Euskal Autonomia Erkidegoan Gazteria Zuzendaritzaren politikak garatzeko solaskide nagusia, eta protagonismo handiko eginkizuna izan du Gazteriaren Euskal Lege Proiektua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gazteriaren III. Plana prestatzeko prozesuan.

Beste alde batetik, parte hartzeari ematen zaion garrantziarekin batera, beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidego gazteriak era bateko edo besteko zerbitzuetatik bideratzen diren gazteriarentzako politiken barruan beren esku jartzen diren baliabideez behar adinako informazioa izatea. Informazio hori gazte guztiengana iristea ezinbesteko baldintza da, izatez, zerbitzu horietarako irispidea denentzat berdina izan dadin.

Programak. **Parte-hartzearentzako eta zabalkunderako laguntza**

Gazteriaren Zuzendaritzak zuzeneko laguntza izendunen bidez sostengua ematen dio **Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari** (EGK) bere jarduera arruntetarako, azpiegituretan inbertitzeko eta hiru hiriburuetan dituen bulegoak mantentzeko.

Zabalkundeari dagokionez, Gazteriaren Zuzendaritzak edo gazteriaren eremuan diharduen beste edozein erakundek eskaintzen dituzten zerbitzuen eta garatzen dituzten programen berri gazte guztiei helarazteko eta jakinarazteko tresna nagusia *Gazteaukera.net* ataria da. Atari hori berrituz joan da, eta 2010ean sarrerako orri berri bat egin zaio; orain bideoak, Flickr-eko argazkiak, gazte-sareak eta parte hartzeko atala (Gazte-txartela lehiaketak, bloga eta Gazteriaren Legea) ditu berrikuntza nagusiak.

Atari honek eskaintzen dituen zerbitzuen artean, aipatzekoa da Gazte-txartela dutenen artean Zuzendaritza honen berri jaso nahi dutela adierazi dutenei eta izena eman dutenei butlein digital bat bidaltzen zaiela. 2010eko azaroko butelina Gazte-txartela duten 23.800 gazteri eta izena emana duten beste 1.100en bat pertsonari bidali zitzairen.

Azkenik, 2010ean hobekuntza bat egin da on-line tramitatzeko prozeduran. 2010ean nazioarteko agiri guztiak tramitatzeko zeuden formularioak aldatu ziren (Gazte-txartela, aterpeke-txartela, ikasle-txartela, irakasle-txartela eta go25).

2010ean web orriak 338.781 bisita izan ditu, aurreko urtean baino ia hiru aldiz gehiago.

2.5. Gazteen eremuko ekimenen laguntza

Testuingurua. **Elkarlana laneko irizpide gisa**

Gazteriaren politikak politika integral gisa definitzeak gazteria bera eta administrazio publikoak bultzatzen dituen Programak garatzeko mekanismoak era jakin batean ikustea esan nahi du. Horrela, hain zuzen, eragile publikoen arteko elkarlana eta eragile publikoen eta pribatuen artekoa guztiz beharrezkoa da bideratzen diren programek izan dezaketen eraginkortasun guztia izan dezaten. Eta horretarako nahita nahiezkoa da Gazteria Zuzendaritzak elkarlaneko harreman estuak izatea Euskal Autonomia Erkidegoko gazteriaren esparruan diharduten eragile guztiekin.

Programak. **Gazteen eremuko ekimenetarako laguntzak**

Gazteriaren Zuzendaritzak hiru laguntza-bide eduki ditu, Euskal Autonomia Erkidegoan eragile publikoek eta pribatuek gazteriaren eremuan bideratzen dituzten ekimenei laguntzeko. Lehenengoa, orokorra, gazteriaren eremuan Programak eta jarduerak bideratzeko laguntzak emateko. 118 diru-laguntza banatu dira guztia aipatzen ari garen bi urte hauetan; 1.442.797 €-ko kostua izan dute.

Bigarren laguntza-bidea gazteen artean balio demokratikoetarako eta bakearen kulturarako heziketarako Programak eta jarduerak bideratzeko proiektuetarako da. 48 proiekturi eman zaie laguntza eta 255.321 €-ko kostua izan dute.

Hirugarren laguntza bidea tokian tokiko gazteentzako ekipamenduen sarea bultzatzeko izan da; 44 proiekturi eman zaie laguntza eta 2.171.786 €-ko kostua izan da guztira.

Laguntza-ildoak	2009		2010	
	Proiektuak	Emandako laguntza €	Proiektuak	Emandako laguntza €
Gazteen eremuko Programak eta jarduerak garatzea	59	176.117	59	726.680
Gazteen artean balio demokratikoetarako eta bakearen kulturarako heziketarako Programak eta jarduerak bideratzea	20	127.608	28	127.713
Gazteentzako ekipamenduen sarea toki-mailan	32	1.626.528	12	545.285



3. Etorkizuneko erronkak

Gazteriaren Euskal Legea onartzea eta Gazteriaren III. Plana – 2020 garatzea izango dira mugari erabakigarriak datozen urteetarako gazteriaren politiken aplikazioari dagozkionez. Gazteen eskubideak bermatzeko lege-marko eguneratu bat eta administrazio eta eragile guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen bizi-kalitatea hobetzeko ahaleginetan jarriko dituen epe luzerako estrategia transbertsal bat finkatuko duen eta 2020ra begiratzen duen jarduera-plan bat edukitzea esan nahiko du horrek.

Lege berria eta Gazteriaren III. Plana, administrazioen arteko koordinazioan, transbertsaltasunean eta integraltasunean oinarrituta euskal gazteriaren premiei erantzuten dieten politika batzuk finkatzea lortzeko aplikatzea izango dira alor honetan etorkizunean izango diren erronkak. Alde horretatik, hain zuzen, beste baliabide bat sortzea eskatzen du Legeak: Gazteriaren Euskal Institutua. Erakunde horrek, gazteriari buruzko politika integrala, gazteen autonomiaren eta emantzipazioaren aldeko ekimen positibo zehatzak eta gazteen sustapenerako neurriak planifikatzea, programatzea, koordinatzea, betetzea eta ebaluatzea izango du helburua.

Gazteriaren III. Plana – 2020 eta Gazteriaren Euskal Legearen Proiektua prestatzeko prozesuaren ezaugarri nagusietako bat parte-hartze handia izan da. Prozesu horiek beroriek argi utzi dute zenbateko garrantzia duen parte-hartzeko tresnak errealitate berrira egokitzeak. Alde horretatik, bai parte-hartzeko ereduen ikuspegitik zein informazio-sistemen ikuspegitik, oso sakonak izan dira azkeneko urte hauetan gizarte-sareen aurreramenduak ekarri dituen aldaketak, eta uste izatekoa da, zantzu guztien arabera, aldaketa horiek ez direla bukatu. Beste alde batetik,



informatzeko, komunikatzeko eta parte hartzeko ohituretan protagonista nagusiak argi eta garbi gazteak diren aldaketa kultural bat ari da gertatzen. Zentzu honetan garrantzi handiko erronka bat sortzen da edozein lekutan, baita Euskal Autonomia Erkidegoan ere, gazteriaren politika garatzeko ardura dutenentzat: informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak eragiten dituzten aldaketetara egokitzeko malgutasuna duten sistemak ezarri behar direla, alegia.

Gazteriaren Behatokia garrantzi handiko tresna izango da datozen urteotan ere; euskal gazteriaren egoerari buruzko ezagutza eta analisia denbora guztian eguneratuta edukitzeko balioko duen informazioa ziurtatzeko amaierarik gabeko erronka izango du. Alde honetatik, gizartean gero eta bizkorrago gertatzen diren aldaketak eta krisi ekonomikoaren ondorioak informazio estatistikoa eta haren analisia etengabe eguneratzera behartzen duten faktoreak dira.

Horretarako, gazteen alorrean premientzako erantzunak eta esku-hartzeko aukerak bilatzen jarraitzeko, are gehiago indartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko edo Erkidegoaz kanpoko beste erakunde batzuekiko elkarlana, errealitate konplexu honen ikuspegi integral bat eskainiko duten beste ikerketa-ildo batzuei ekiteko.

Beste alde batetik, 'Gazte-txartela - European Youth Card' gazte guztientzat erreferentziatzeko txartela izan dadin, 2011n beste aldi berri bati ekin zaio, hiru finantza-erakunderekin elkarlanean (BBK, Kutxa eta Vital Kutxa). Programa horri bultzada bat eman nahi zaio, txartel horren ospea eta erabilera-maila are gehiago jasoko duten abantailak, berrikuntzak eta proposamen erakargarriak eskainiz. Horren helburuen artean nabarmentzekoa da gazteriaren joera eta premia berriei erantzuteko gogoia, horretarako produktu horretan zenbait berrikuntza eginez, erakunde lankideen sarea zabalduz eta txartel horren erabiltzaileentzat beherapen gehiago lortuz, gizarte-sare ezagunenetan 'Gazte-txartela - European Youth Card' txartelaren inguruan komunitatea sortzeko aukera ahaztu gabe.

Gazte Informazioko Zerbitzuan sareko lana hobetzea da beste erronka bat. Horretarako aplikazio informatiko berri bat ezarri da, laneko metodo eraginkorrago bat lortzeko eta sistema osoan informazioa homogeneizatzeko.

Azkenik ez da baztertu behar gazteen ekimenentzako laguntza; alderantziz baizik, ekonomiaren egoerak uzten badu, handitu egin behar da etorkizunean. Hala eta guztiz ere, asmo-alderdi handiagoko jarri behar da laguntzak ematerakoan, era horretan laguntza horiek laguntza orokor bat baino areago estrategia baten, argi eta garbi zehaztutako lehenetasun batzuen arabera erabiltzen den gazteriaren politikarako tresna bat izan daitezen. Zentzu honetan, hain zuzen Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-taldean eta beste eskualde batzuetako edo Europar Batasuneko kide diren estatuetakoko gazte taldeen arteko mugikortasuna eta trukea bideratzen duten jarduerak bideratzeko laguntza-programa berri bat abiarazi da, gazteak gizarteratzen laguntzeko tresna bat gehiago izan dadin, horretarako Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait erakunderi era horretako jarduerak bideratzen laguntzeko.